



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ZENBAIT ESPEZIEREN EHIZA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA OROKORRAK ETA BEREZIAK ZEHAZTEN ETA 2018-2019 KANPAINARAKO ETA ORKATZAREN 2019-2020KO KANPAINARAKO EHIZALDI BALIODUNAK ZEHAZTEN DITUEN FORU ARAU PROIEKTUARI BURUZKO ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezkari konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz
- e) bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta hau egiten da Arabako lurralde historikoan ehiza, 2018-2019ko ehizaldi baliiodunak eta orkatzaren 2019-2020ko ehizaldi baliiodunak arautuko dituen etorkizuneko araudiak ustez eragin ditzakeen herritarren eta haiek ordezkatzeko dituzten dituzten elkarteetako iritzia jasotzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, apirilaren 4ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Ehiza arautzea Arabako lurralde historikoan (orain arte urteroko foru agindu honen eta bestearen bidez arautu da).
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Arabako lurralde historikoan ehizaren bidez gauzatzen den aprobetxamendua arautuko duen araudi orokorra integratuki ezartzea, bai eta zenbait espezieren ehizarako baldintza bereziak ere, eta, halaber, 2018-2019 ekitaldirako ehiza epe baliodunak ezartzea, eta 2019-2020 ekitaldirako orkatzaren ehizarako epe balioduna ere bai.
ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezkoa da, eta egokia ere bai, Araban ehiza arautuko duen araudi osoa integratuki edukitzea, zenbait espezieri aplikatzekoak diren berriazko arauak ere barne.
HELBURUAK	Testu bakar bat edukitzea, Arabako ehiza arautzen duen araudi osoa hartuko duena, eta, hala, araudi horren ezagutza, erabilera eta zabalkundea hobetzea, urteroko xedapen bidez arautzeko utzirik alderdi xeheagoak, hala nola epe baliodunak, egutegiak eta beste xehetasun batzuk
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	Ez dago ordezeko konponbiderik araudiaren egungo barriadura konpontzeko.